

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

HEZKUNTZA
ETA KIROL
FAKULTATEA
FACULTAD
DE EDUCACIÓN
Y DEPORTE

JOLAS SINBOLIKOAREN GARAPENA

GENERO IKUSPEGITIK AZTERTZEN

GRADU AMAIERAKO LANA

EGILEA: Suárez Clemente, Cristina.

ZUZENDARIA: Vizcarra Morales, Maria Teresa.

2019-2020

LABURPENA

Lan honen helburua, gizartean, genero berdintasunerako bidean gertatu diren aldaketak eta hezkuntzak rol estereotipatuen aurkako zer nolako esku-hartzea egiten duen aztertzea da. Horretarako, Haur Hezkuntza (HH) 4 urteko gela batean, haurrek, jolas sinbolikoan ari bitartean, zer nolako rolak erreproduzitzen dituzten behatu dira. Haurrek, jolas sinbolikoaren bitartez, helduen mundurako prestatzen dira eta horrekin batera, beraien identitatea sortzen dute. Beraz, haurrek egiten dituzten jolasei esker, gizartean aldaketak egon diren edo ez ondoriozta dezakegu. Behaketa honen bitartez, haurrek, beraien generoari dagozkion rolen erreprodukzioa egiten dutela ikusi da. Beraz, haurrek, beraien genero identitatea eratzeko momentuan, beraien inguruko helduak imitatuz egiten dutela esan daiteke.

Hitz-klabeak: jolas sinbolikoa, generoa, genero estereotipoak, genero rolak, imitazioa, erreprodukzioa, haur hezkuntza

RESUMEN

El objetivo principal de este trabajo es analizar los posibles cambios que ha causado la lucha por la igualdad de género y la importancia de la educación contra la reproducción de los estereotipos de género. Los niños y las niñas se preparan para el mundo de los adultos mediante el juego simbólico, reproduciendo así los comportamientos que observan de los adultos que les rodean. Por lo tanto, puede deducirse que los niños y las niñas también harán una reproducción de roles de género durante el juego. Así mismo, podremos observar a través de ello los posibles cambios que han ocurrido en la sociedad actual. Para ello, se han observado diferentes sesiones en las que los niños y las niñas han dejado a relucir que los estereotipos de género se siguen reproduciendo de la forma en la que la sociedad los marca. Por lo tanto, podría decirse que existe una relación entre la construcción de la identidad de género y la imitación de los niños y niñas de las conductas de los adultos.

Palabras clave: juego simbólico, genero, estereotipos de género, roles de género, imitación, reproducción, Educación Infantil

AURKIBIDEA

LABURPENA	2
1. SARRERA	4
2. MARKO TEORIKOA	4
2.1. <i>JOLASAREN DEFINIZIOA</i>	5
2.2. <i>JOLAS SINBOLIKOAREN DEFINIZIOA</i>	7
2.3. <i>GENEROA</i>	8
2.3.1. <i>GENEROAREN ARABERAKO EZBERDINTASUNAK</i>	9
2.3.2. <i>GENEROA ETA JOLAS SINBOLIKOA</i>	10
3. HELBURUAK	13
4. METODOA	13
4.1. <i>TESTUINGURUA ETA PARTAIDEAK</i>	14
4.2. <i>GrALa EGITEKO JARRAITU DEN PLANIFIKAZIOA ETA KRONOGRAMA</i>	15
4.3.1. <i>Behaketa txantiloia</i>	15
4.3.2. <i>Egunerokoa</i>	16
4.4. <i>INFORMAZIOA ANALIZATZEKO ERABILI DEN PROZEDURA</i>	16
4.4.1. <i>Behaketa txantiloia</i>	16
4.4.2. <i>Egunerokoaren analisisa</i>	17
5. EMAITZAK	17
5.1. <i>BEHATUTAKO SAIOAN EMAITZA</i>	17
5.1.1. <i>Estereotipoek markatzen dituzten neskontzako jolasak:</i>	17
5.1.2. <i>Estereotipoek markatzen dituzten mutilentzako jolasak:</i>	23
5.2. <i>EMAITZA OROKORRAK</i>	29
6. ONDORIOAK	32
6.1. <i>EZTABAIA</i>	32
6.2. <i>JOLASBAKOITZAREN ONDORIOAK</i>	33
6.2.1. <i>Estereotipoek markatzen dituzten neskontzako jolasak</i>	33
6.2.2. <i>Estereotipoek markatzen dituzten mutilentzako jolasak</i>	35
6.3. <i>ONDORIOEN LABURPENA</i>	35
6.4. <i>HELBURUEN LORPENA</i>	36
7. HOBEKUNTZA PROPOSAMENAK	36
8. ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOA	37
9. ERANSKINAK	40

SARRERA

Historian zehar, gizon eta emakumeen arteko bereizketak egon dira eta hauek belaunaldiz-belaunaldi transmititu izan dira. Ezberdintasunak, jaiotzen garen momentutik gertatzen dira (Platero, 2014). Alde batetik, jaiotzetik ditugun genitalen arabera arropa, jostailu eta kolore ezberdinak esleitzen zaizkigu. Besteak beste, arrosa, gonak eta panpinak neskentzat bideratzen diren bitartean, prakak, kolore urdina eta kotxeak mutilei eskaintzen zaizkie (Subirats eta Brullet, 1999). Fenomeno honek “genero-estereotipoak” izena jasotzen du eta autore ugari hitz egiten dute honetaz, Rodríguez-López (2015), Castillo eta Montes,(2014) esaterako.

Genero estereotipo horiek ezberdinak dira gizartearen testuinguru soziokulturalaren arabera eta horiek kontuan hartuz emakume edo gizon izateak hainbat portaera izatea suposatzen du (Gómez Suárez, 2010). Horren ondorioz, gizon edo emakume garen heinean rol ezberdinak atxikitzen zaizkigu. Adibidez, gizonak ausartak izatea espero den bitartean, emakumeak adeitsuak izatea espero da. Rol espektatiba horiek, asimilatu eta ondoren gizartean erreproduzitzen ditugu, pigmaleon efektua sortuz. Hori dela eta, gizon eta emakumeok munduaren bestelako perspektiba ditugu (Rodríguez-López, 2015).

Genero rolak, haurtzaroan barneratzen hasten dira, haurrek egunerokotasunean bizitzen duten sozializazioaren bitartez (Arenas, 2006). Haurrek, beraien inguruan dituzten helduak behatu eta beraien jolasen bitartez imitatzen dituzte. Modu honetan, helduarora iristean beraien generoari egokitutako rolak erreproduzitzeko probabilitate asko dago, gizarte aldaketa gertatzeko aukera murriztuz.

Lan honen bitartez, haurrek jolas sinbolikoan aritzean jorratzen dituzten ekintzak aztertu dira. Horretarako, Urretxu eta Zumarragako Gainzuri ikastetxe publikoan haurrek egindako 10 saio behatu dira. Haurrek, jolas sinbolikoaren bitartez, helduen munduarekiko gerturapena eta prestaketa egiten dute (Losada Iglesias, 2009), beraien inguruan dauden helduek egiten dituzten ekintzen erreprodukzioa antzetzuz (Corbella, 2010). Hortaz, beraien generoari esleitutako rolak azalera daitezke.

2. MARKO TEORIKOA

Atal honetan, jolasaren definizioa eta honek haurtzaroan duen garrantzia azalduko da. Ondoren, jolasaren inguruko zertzeladak eman ostean, jolas sinbolikoan sakonduko da. Gero, sexu eta generoaren arteko bereizketak azalduko dira. Amaitzeko, genero

bakoitzari esleitzen zaizkion rola eta horiek haurren jolas sinbolikoan duten eraginaren azalpena egingo da.

2.1. JOLASAREN DEFINIZIOA

Jolasa, haurrek egiten duten oinarrizko jardura da eta honako ezaugarriak dituela esan daiteke: motibagarria, atsegina eta borondatezkoa da. Jolasa haurrek sozializatzeko erabili dezaketen erreminta lagungarria da (Piaget eta Inhelder, 1997). Izan ere, honen bitartez, haurrek beraien sentimenduak, emozioak, interesak, desioak, beldurrak adierazten dituzte. Gainera, beldurra ematen dion horren antzezpena egin dezake, erasotzailearen papera hartuz. Horri esker, haurrek dituzten beldurrei aurre egiteko aukera dute (Aucouturier, 2004).

Bestalde, Mausek (2007) dio ekintza bati jolasa deitu ahal izateko, honako ezaugarriak izan beharko zituela (8.orr):

- *Fisiko eta korporala*: nortasunaren adierazpen naturala ahalbidetzen du.
- *Etikoa*: jolas guztiek jarraitu beharreko arauak dituzte.
- *Soziomotorra*: taldean egin daitekeen ekintza da. Honen barruan, emozioak eta berdinen arteko erlazioak garatzen dira.

Horregatik, haurtzaroan egiten den ekintza garrantzitsuenetako bat da. Nahiz eta jolasaren helburu nagusia ondo pasatzea izan, garapen psiko-motorra, mental, afektibo eta sozialean eragin handia du (Llorente, 2004). Horregatik, jolasak garrantzia handia du haurren hezkuntzako etapa guztietan, ikaskuntza esanguratsuak bideratzen eta haurrak motibatzen baititu eta gainera, berdinen arteko interakzioa sustatzen du. Horregatik, jolasa eskolan erabiltzea gomendagarria da (Losada Iglesias, 2009).

Beraz, jolasa eta didaktikaren arteko lotura egitea interesgarria da Haur Hezkuntzako geletan. Izan ere, jolasak haurren ikaskuntza prozesua indartu dezake. Horretarako, irakasle edo hezitzaileak jolasaren estimulatuak eta behatzaileak izan behar dira, jolasean parte-hartu gabe eta beti ere haurrek egiten duten jolasaren bat-batekotasuna errespetatzen (Sarlé, 2001). Jolasak eskolan, ikaskuntza prozesuan lagungarria izateko, hiru funtzio bete behar ditu. Alde batetik, gaitasun motorra sustatu behar du. Honekin, haurrek pertzepzioa eta erantzun motorra garatuko dute. Bestalde, gaitasun kognitiboak bultzatu behar ditu. Horri esker, haurrek behatzeko eta behatutakoari buruzko gaitasuna garatuko dute. Azkenik, dimentsio soziala landu behar du. Honekin batera, lotura afektiboak sortuko dira eta besteak ezagutzeko lagungarria izango da (Mausek, 2007). Hala ere, ez da ahaztu behar jolasa ez dela emaitzak lortzeko

tresna, hurrek ondo pasatzeko eta horrekin garapena lortzeko tresna baizik. Horregatik, hurrei nahi duten moduan jolasten eta nahi duten moduan jolasa eraikitzen eta amaitzen utzi behar zaie. Horrela, hurrek beldurrik gabe akatsak egiteko eta horietaz ikasteko plazerra esperimentatuko dute (Ruiz de Velasco eta Abad, 2011).

Fusté eta Bonastre-ren (2010) esanetan, hurrek dituzten beharrak jolasek baldintzatu ditzakete. Horregatik, honako parametro hauek kontuan hartzea gomendatzen dute (26-27 orr):

- *Haurraren oinarrizko beharrak asetu.* Garrantzitsua da, hurrek, afektiboki asetuta sentitzea (haurtzaroan, sentsazio hauek estuki lotuta daude). Jolasaren bitartez hurrak ikasi egiten du, batez ere, onartua, baloratua eta segurtasuna sentitzen bada.
- *Mugimenduaren beharra.* Behar hau nabaria da haurra amaren sabelean dagoen momentutik. Jaiotzean, burua, eskuak, besoak... mugitzen ditu. Ondoren, buelta ematen, arrastaka aritzen, katuka ibiltzen, zutik jartzen eta azkenik lorpen handiena lortzen du: oinez ibiltzea. Hau guztia posible izateko, hurrak segurtasuna, pizgarria eta mugimendua errazten duen giroaren laguntza behar du.
- *Helduaren jarrera argia.* Pertsona helduak hurrari afektibitatea eta segurtasuna eskaini behar dio, beharrezkoa duen laguntza eskaintzen dion bitartean. Bestalde, ez du haurra gehiegi babestu behar, berarengan konfiantza izan behar du soilik. Gainera, haurraren ikaskuntza prozesuaren funtzionaltasuna kontuan hartu behar du, haurrarentzako egiten duen guztiak zentzua baitu.

López Chamorro (2010) haur jolas mota ezberdinak daudela dio. Jolas bakoitzak haurren garapenean funtzio ezberdina du eta funtzio horren arabera, jolasak sailkatu egiten dira. Hori horrela, bi sailkapen bereizten ditu (29-31orr):

- *Rüssel-en sailkapena:* lehenik eta behin, jolas konfiguraturua: honen bitartez "forma ematearen" joera orokorra gauzatzen da. Ondoren, entrega jolasa: konfigurazioaren eta emanaldiaren arteko lotura dago beti. Bi joeretako bat nagusi izan daiteke, eta bestea laguntza-elementu gisa gera daiteke jolasean. Pertsonaien irudikapen jolasa: hurrek pertsonaia, animalia, edo giza pertsonak irudikatzen dituzte, horien ezaugarriak erreferentzia gisa hartuz. Amaitzeko, jolas arautua: jardueraren garapena arau batzuekin burutu behar den hura da.

Orokorrean, haurrek oso zorrotzak izaten dira arauak betetzeko momentuan, horrek segurtasuna ematen dielako.

- *Piageten sailkapena*: hasteko, jolas sentsorimotorra (0-2 urte): lehenengo hilabeteetan, umeeek era askotako mugimenduak eta keinuak errepikatzen dituzte plazer hutsagatik, eta honek eskuratutakoa sendotzeko balio du. Bestalde, jolas sinbolikoa (2-4urte): haurrek helduen mundukoa egiten dituzten imitazio edo antzezpenetan oinarritzen da. Honi esker, hizkuntza eta irudikapenerako gaitasuna lantzen dira. Ondoren eraikuntza jolasa: ez dago adin tarte batekin lotuta trantsizio puntu bat da non jolasak forma desberdinak hartzen dituen. Amaitzeko, jolas arautua (4-7 urte): izaera soziala duten jolas sinple eta zehatzak dira. Hauen bitartez, haurrek pixkanaka arauak ulertzen eta ikasten doaz.

6 hilabete eta urte betearen inguruan, haurren jolasa mundua esploratzea da. Adin honetan haurrek mugikortasun murriztua dutenez objektuak beraien eskuetara egokitzea gomendagarria da. 1-2 urte bitartean, haurren mugikortasuna errazagoa gertatzen hasten da. Horrek ere, haurren jolasean eragina du, ingurua esploratzeko gaitasun handiagoa baitute. Beraz, hurrei objektuak esploratzeko hurbildu ordez, hurrei objektuak aurkitu eta esploratzeko aukera eman behar zaie (Majem eta Òdena, 2001). 2 urtetik aurrera ordea, haurrek jolas sinbolikoa garatzen hasten dira. Horren bitartez, esperientzia ezberdinak antzezteko aukera dute (Aránega Iglesias, 2016).

2.2. JOLAS SINBOLIKOAREN DEFINIZIOA

Jolas sinbolikoa hobeto ulertu ahal izateko, lehenik eta behin sinbolo hitza definitu beharko litzateke. Sinbolo hitza etimologikoki grekotik dator eta "bildu", "elkartu", "elkar onartu" edo "trukatu" esan nahi du. Garai batean hitzarmenak sinatzeko erabiltzen zen. Objektu bat bitan banatu eta itunaren sinatzaile bakoitzak alde batekin geratzen zen. Bakoitzak bere aldetik ez zuen inolako baliorik, bata eta bestearen arteko erlazioa baitzegoen. Horrela, zati bakoitzak itunaren sinatzaileak identifikatzeko aukera ematen zuen. Jolasaren bitartez haurrek ere sinbolizazio hori erabiltzeko gai dira (Ruiz de Velasco eta Abad, 2011).

Pentsamendu sinbolikoa, haurrek 2 urte inguru dituztenean agertzen da, eta pixkanaka haurrek helduen mundua imitatzen hasten dira. Horri esker, irudikapen mentalak egiteko gaitasuna esperimendatzen dute (Fusté eta Bonastre, 2010). 4-7 urte bitartean, jolas sinbolikoan rol irudikapenak agertzen dira (Reina Ruiz, 2009). Jolas

sinbolikoa, haurren irudimenezko bat-bateko jolasa da, non haurrek, errealitateaz jabetzen dira. Ekintza horretan, jolasa keinuen edo ahozko zeinuen tresna sinboliko bihurtzen da, eta azkenean, lengoia dramatiko gisa eratzen da (Tejerina, 1994).

Jolas sinbolikoaren barruan, hainbat ekintza bereizten dira, zeintzuetan haurrek helduen bizitza (aitatxo eta amatxo, medikua, erizaina, dendaria, eroslea, ile-apaintzailea, animaliak...) irudikatzen dituzten (Iglesias Forneiro, 2008). Beraz, jolas honen ezaugarri nagusia azpimarratu beharko balitz, haurrek jolasaren bitartez euren inguruko errealitatean gertatzen denaren fikziozko simulazioa egitea da. Horrela, haurrek euren imajinazio eta gogoratzeko gaitasuna frogatzen dute, jolasten duten momentuan aurrean ez dituzten animaliak edota gertaerak gogoratzen baitituzte (Ruiz de Velasco eta Abad, 2011).

Gainera, jolas sinbolikoa nahiz eta jarduera bakarti eta egozentrikoa izan, hainbat umeren partaidetza partekatua ere bada. Horren ondorioz, rol banaketa eta jolas beraren irudikapen adostu behar dira (Aránega Iglesias, 2016). Rol horiek antzetzuz, haurrek euren bizitzako harremanen adierazpena egiten dituzte eta horrekin batera ingurune soziazioa ulertzen dute, hori da, haurrek egiten dituzten jolasetan euren harremani zein egunerokotasunean bizi dituzten elementu kultural eta sozialei ematen dizkieten esanahiak adierazten dituzte (Villalobos, 2009). Beraz, jolas sinbolikoak haurren garapen sozialean eragina du. Hortaz, berdinen arteko komunikazioa sustatzeko erreminta da. Gainera, helduen mundu soziala ezagutzeko lagungarria da eta haurrek lan mundurako presatzen ditu, jarrera sozialen arauak barneratzen laguntzen duen bitartean (Losada Iglesias, 2009).

2.3. GENEROA

Jolas sinbolikoa mundu soziala ezagutzeko baliagarria bada (Losada Iglesias, 2009), generorekiko gizartean dauden estereotipoen inguruan hitz egitea egokia izango litzateke.

Hasteko, sexua eta generoa bereiztu behar dira. Sexua naturalki jasotzen dugun "etiketa" da eta generoa berriz, izaera soziokulturala duen "etiketa" (Pallarès 2012). Hau horrela, generoa, soziazioaren ondorioz sexuaren araberako rola esleitzean datza (Coll-Planas, 2010). Beste era batera esanda: generoaren eraikuntza bizitza osoan gertatzen den prozesua da, eta honen bitartez, gizakiak jasaten duen soziazioaren ondorioz, norberaren sexuari esleitutako, balio, jarrera, itxaropen eta jokabide desberdinak barneratzen ditu (Ferrer eta Bosch, 2013). Fenomeno honek "genero-estereotipoak" izena jasotzen du. Genero-estereotipoak gizonek eta

emakumeek dituzten atributu edo ezaugarri buruzko sinesmenen multzo egituratuak dira, kultura baten barruan partekatzen direnak (Castillo eta Montes, 2014).

Horren arabera, genero identitatea sortzen da. Genero identitatea, gizon edo emakume gisa auto klasifikatzea da, kulturalik gizon edo emakume gisa ulertzen denaren arabera (López Sánchez, 1988). Beraz, norbera bizi den kontestu soziokulturalak markatuko du gizon edo emakume izatea zer den eta horren arabera, rol ezberdinak banatuko dira (Gómez Suárez, 2010).

Genero identitatearen eraketa haurtzaroan hasten da, haurrak bere buruaren kontzeptua garatzean eta bere gorputza deskribatu eta honekiko jarrera bat hartzean; gorputza zer den, nolakoa den, honen aukerak eta mugak, zein genero esleitu zaion eta abar jakitean (Becerra eta Melo, 2012).

Horrek esan nahi du, inguruneak, jaiotzen garen unetik genero estereotipoetan oinarritutako arau batzuen barruan hezi gaituztela eta horiei erreparatuz gure identitate eraiki behar dugula. Horren ondorioz, gizarteak markatuko genero rola eta arauak betetzea espero da. Horiek apurtzen badira, eta norberari dagokion genero rola betetzeari uzten bazaio, gizartearekiko talka sortzen da (Quesada, 2014).

2.3.1. GENEROAREN ARABERAKO EZBERDINTASUNAK

Gizartean, genero berdintasunerako aurrera pausuak egin arren, maskulinoak diren jarrerak femeninoak diren jarrerak baino balio handiagoa izaten jarraitzen dute. Hori dela eta, erabateko genero berdintasunera iristea zaila gertatzen ari da (Corbella, 2010). Generoen arteko desberdintasuna, oinarritzko gizarte egitura sozialen antolamenduaren parte da, familia edo lana diren bezala. Era berean, zaintzan, espazio publikoan parte hartzea eta emakumeen ekarpen sozialen garrantzian ezberdintasuna areagotzen dute (Platero, 2014).

Gizon eta emakumeek ezaugarri fisiko ezberdinak dituzte, eta honek ugalketa prozesuan bestelako rola izatea dakar. Hori horrela, gizarteak dituen beharrak asetzeko ere funtzio ezberdinak bete beharko dituzte (Arenas, 2006). Horren ondorioz, gizon eta emakumeek errealitatearen bestelako pertzepzioak dituzte, femeninoa eta maskulinoa (Rodríguez-López, 2015).

Gizonak, lan produktiboa egiteko eta esparru publikoan jarduteko bideratuak izan dira. Horregatik, beraiengandik boteretsuak, agresiboak, intelektualak eta ausartak izatea espero den bitartean, emakumeengandik adeitsuak, pasiboak zein obedienteak izatea espero da eta esparru pribatuan aritzea, erreprodukzioa beraien ardurapean utzita (Rodríguez López, 2015). Modu honetan, gizona, protagonista eta elementu

garrantzitsua kontsideratzen da, emakumeak bigarren mailako papera betetzen duen bitartean (Ferrer eta Bosch, 2013).

Genero eta sexuaren araberako rolak pertsona helduei atxikitzen zaizkien arren, genero identitatea jaio aurretik garatzen hasten da. Helduek, haurrak jaio baino lehen espektatiba ezberdinak dituzte neska edo mutila izango direla jakitean (Rocha Sánchez, 2009). Horrez gain, jaiotzetik ditugun genitalen arabera arropa, jostailu eta kolore ezberdinak esleitzen zaizkigu. Besteak beste, arrosa, gonak eta panpinak nesKentzat bideratzen diren bitartean, prakak, kolore urdina eta kotxeak mutilei eskaintzen zaizkie (Subirats eta Brullet, 1999).

Horren ondorioz, Haur Hezkuntzako haurren artean ere generoen arteko desberdintasuna nabaria izaten da. Haurrek, eskolara joateko adina izan baino lehen genero estereotipoetan oinarritutako jarrerak barneratuak baitituzte. Batzuetan, eskolara iristean estereotipo horiek azpimarratu egiten dira, eskolan ere horiek sustatzen baitira, hezkuntza arloan ere neska eta mutilen arteko ezberdintasunak areagotuz. Eskoletan gertatzen den ezberdintasun hori dela eta neska askok beraien ikaskuntza prozesua autoestimua baxuarekin amaitzea ekartzen dute, beraien burua adin bereko mutilen aurrean galtzaile ikusita. Asimilatutako porrot hori, heldutasunera iristean, emakume gisa sozializatzean ikusiko da. Bestalde, mutilek ere genero estereotipoek eragindako presioa ere jasaten dute. Izan ere, hezkuntza arloan beraiekiko dauden espektatibak altuagoak dira. Espektatiba horiek betetzera iristen ez direnak lan mundurako bidean porrot egin dutela sentiaraziz (Arenas, 2006).

Beraz, ez dago berdintasun sozialik, ez gizartearen aurrean aukera berdintasunik, ez bakoitzaren garapen pertsonalerako berdintasunik, ez gauza bat edo bestea egiteko aukeraren berdintasunik, ez daude berdintasunik lanbide bat, lanpostu bat edo jostailu bat hautatzeko unean. Hori da, sexuen arteko antzekotasuna aldea baino askoz handiagoa bada ere, ez dirudi biak baldintza berdinetan bizi direnik (Lera, 2002). Horren ondorioz, emakumeak ahulezia eta porrotean sozializatzen dira, horien aurrean babesgabetasuna sustatzen (Esteban eta Távora, 2008).

2.3.2. GENEROA ETA JOLAS SINBOLIKOA

Jolasak ikaskuntzaren testuinguru naturalean horrenbesteko garrantzia izanik, genero estereotipo eta rolen asimilazioan duen garrantzia azpimarratu beharra dago. Izan ere, gizon eta emakumeek rol ezberdinak dituzten gizarte batean, haurrek jolasetan sortzen

dituzten elkarrekintza-harremanetan estereotipo horiek errepikatzen dituzte (Rodríguez, Hernández eta Peña, 2004).

Gaur egun, neska eta mutilek jolas berdin edo antzekoetan parte-hartzen dute. Hori dela eta generoen arteko ezberdintasunak murrizten doaz. Hala ere, oraindik mutilentzako eta neskentzako eskusiboak diren jolasak daudela uste da. Gainera, bi generoak elkarrekin jolasten dutenean neska gehienek, salbuespenak salbuespen, jolas horietan diskriminatuak izaten dira (Gil, Cachón, Diaz, Valdivia eta Zagalaz, 2014).

Gertaera hori, sozializazioaren bitartez barneratutako genero estereotipoek markatutako arauengatik izan daiteke. Horretaz gain, helduen esku-hartzeak ere eragina du haurren jolasetan. Hasteko, haurrei jostailuak oparitzen zaizkienean, neska edo mutila diren heinean, jostailu ezberdinak eskaintzen zaizkie. Mutilei, kotxeak, kamioiak edo trenak eta neskei panpinak emanaz. Nahiz eta gaur egun jarrera hau gutxiago erreproduzitu, oraindik ere oso gutxi dira panpinekin jolasten duten mutilak ikustea, baina kamioi edo kotxeekin jolasten duten neskak ikustea arruntagoa da (Corbella, 2010).

Komunikabideek paper garrantzitsua jokatzen dute eginkizun honetan. Izan ere, haurrei genero bakoitzaren eginkizunaren mezu zehatzak bidaltzen dituzte euren iragarki eta telesailetan, haurrek etxetan edo inguruko gizartean ikusten dituzten mezuak sustatzen. Hori, berdintasunean oinarritutako gizarte bat lortzeko oztopoa bilakatzen da, haurrek genero rolak asimilatu eta erreproduzitzeko bultzatzen dituztelako (Mendoza Cuéllar, 2013).

Haurren jolas sinbolikoari erreparatuz gero, 3 urtera arte genero berezitasunik gabe gertatzen dela nabarmen daiteke. Haurren adina aurrera joan heinean, jolas sinbolikoan ere aldaketak gertatzea suposatzen du, eta bai neskek eta bai mutilek gizarteak markatutako genero arauen arabera jolasak bereizten hasten dira (Rodríguez eta Torío, 2005).

Genero estereotipoek markatutako rolen arabera, neskek ama, alaba, umetxo edo printzesa paperak betetzen dituzten bitartean, mutilek super-heroiak, mamuak edota animaliak irudikatzen dituzte. Hori horrela, jolas sinbolikoaren rolak neskek etxeko egoerak, zaintza eta pertsonekin erlazionatzea irudikatzen dute. Mutilek berriz, agresibitatea eta lehiakortasuna (Puerta eta Gonzalez, 2015). Hori horrela, neskek, gizarteak markatzen duen feminitate hegemonikoaren papera barneratzen dutela ikusi daiteke (Lozano eta Ortega, 1996). Beraz, neskek txikitatik beraien jolasen bitartez amatasunerako sena adierazten dute. Hori horrela, beraien joera zaintzan oinarritutako jolasek besteak baino erakargarriagoak egiten zaizkiela justifikatzen. Mutilen kasuan

berriz, ez dute aitatasunarekiko sena hori adierazten. Hau ere, oraindik haur txikien zaintzaz arduratzen diren gizonezkoak ikustea zaila delako gerta daiteke. Horrek ere mutilen jolasteko eran eragiten du (Corbella, 2010).

Jostailuak tratatzeko moduan ere generoaren araberako desberdintasunak daude. Neskek panpinak zaintzera jolasten duten bitartean, bestelako materialak zaindu eta errespetatzen dituzte. Mutilen kasuan berriz, erabiltzen duten jostailuekiko biolentzia nabaria da, mutilek panpinak zapaldu, piezak jaurti eta besteen eraikuntzak apurtzen dituzte, beraien artean liskarrak sortuz (Puerta eta Gonzalez, 2015).

Jostailuez gain, neskek eta mutilek espazioa erabiltzeko momentuan modu ezberdinean egiten dute. Neskek, espazio itxietan (etxea, logela..) eta mugimendu gutxi eskatzen duten jolasetan (ile-apaindegiak edota arropa dendatan...) ikustea ohikoa da. Mutilen kasuan berriz, espazio irekiak (parkeak, zelaiak...) nahiago izaten dituzte eta bertan borroka, superhero edota fantasiako jolasak egiten dituzte. Hala ere, neskek mutilentzako diren jarrerak hartu ditzakete, inolako arazorik gabe, baina mutilen kasuan ez dago horren ondo ikusia genero estereotipoek markatutako nesken jolasak egiten dituztenen eta horrek gatazkak sortzen ditu (Mendoza Cuéllar, 2013).

Gainera, jolastokiko espazioa okupatzeko moduari erreparatuz, mutilek eta neskek modu ezberdinean egiten dute. Mutilen jolastokiaren erdigunea okupatzeko joera dute, egiten dituzten jolas motek horrela eskatzen dutelako. Neskek, berriz, paseatu, korrika egin edo arkupeetan jolasten dute. Beraz, oro har, jolasteko momentuan mutilek espazio gehiago erabiltzen dute neskekin alderatuta. Bereizketa hau, ez da oso nabarmena Haur Hezkuntzako haurren artean, baina hala ere gertatzen da (Rodríguez, Hernández eta Peña, 2004).

Hau ikusita, hurrek sortzen duten jolas sinbolikoan, euren genero identitatearen eraikuntzaren erreflexua egiten duela esan daiteke. Hala ere, hurrek ez dute genero bata edo bestearen partaide izatearen kontzientzia finkorik. Horrek, beraien berdinak ikusten dituzten pertsonen konportamenduak imitatzera eramaten dituzte, haien jolasetan eraginez. Beraz, jolas sinbolikoak azalarazten duen "izateko nahia" izatea beharrezko den zerbaitean bihurtzen da (Rodríguez eta Torío, 2005).

Horregatik, hezkuntzak garrantzi handia du zeregin honetan. Irakasleek genero-berdintasunarekin, giza eskubideekin eta kulturarekin lotutako kompetentziak sustatu behar dituzte; hori da, gizon eta emakumeen oinarritzko eskubideak eta berdintasun-printzipioak garatzen lagundu behar dute (Lleixá, Soler eta Serra, 2020).

3. HELBURUAK

Hurrek, jolas sinbolikoaren bitartez helduen mundua imitatzen dute eta horrekin batera, gizartean dauden genero ezberdintasunak erreproduzitzen dituzte. Lan honetan, estereotipo horiek nola erreproduzitzen diren aztertu dira. Horretarako saio ezberdinen behaketa egin da. Horretarako, zein jolasetara jolasten duten eta zer nolako rola antzezten dituzten kontuan hartu da.

Bestalde, genero estereotipoek markatutako nesken jolasak (panpinak, printzesak, sukaldetxoak...), mutilak egiten dituztenekin konparatuta, gutxietsiak direla jakinda, hauek mutilak egitean zer nolako ondorioak dituen berdinen arteko sozializazioan aztertu dira. Bestalde, estereotipoek mutilek, neskekin konparatuta, jolas agresiboak eta mugimendu gehiago suposatzen dutenak egiten dituztela adierazten digute. Horiek ere, nesken artean gertatzen diren eta zein mailatan aztertu da.

Beraz, lan honen bitartez hainbat helburu lortu nahi izan dira:

- Hurrek jolas sinbolikoan estereotipoen erreprodukzioak egiten dituztela baieztatzeko saiakera egitea.
- Hurrek beste sexuari esleitutako estereotipoetan oinarritutako jolasak egiten dituzten aztertzea.
- Estereotipoetatik ateratzean zer nolako erantzunak jasotzen dituzten aztertzea.

4. METODOA

Atal hau osatzeko, unibertsitatean egindako praktikaldian hurrek modu librean egindako jolas sinboloaren behaketa eginez lortutako informazioa agertuko da. Informazio hori, taula batean, zein eguneroko moduan adierazita agertuko da. Guztira, hurrek egindako jolas sinbolikoaren 10 saio behatu dira.

Informazioa biltzeko metodologia behaketa parte-hartzailea izan da. Behaketa parte-hartzailea, ikerketa kualitatiboko azterlanetan datuak biltzeko tresna da. Honen bitartez, bizipenak, emozioak, gertaerak, erlijio, maila-sozioekonomiko, adin, kultura, eta genero ezberdintasunak aztertu daitezke (Kawulich, 2005). Saio hauetan, taulan agertzen diren itemak behatzen nituen. Orokorrean behaketan oinarritu naiz, baina batzuetan hurrei zer egiten ari ziren ere galdetzen nien, zehaztasun osoa izateko.

Ondoren, tarte bat izatean eguneroko bat idatzi nuen, haurrek egindako ekintzen zehaztasun gehiago izateko.

4.1. TESTUINGURUA ETA PARTAIDEAK

Haur Hezkuntzako Graduko III. Praktikaldia , Urretxu-Zumarragako Gainzuri ikastetxe publikoan egin dut. Gainzuri, Urretxu eta Zumarragako herrietan dagoen eskola publiko bakarra da. Bertan, Haur Hezkuntza eta Lehen hezkuntza ikasketak eskaintzen dira. Zumarraga eta Urretxu, Gipuzkoako erdialdeko udalerriak dira, Urola Garaia eskualdean kokatzen direnak. Hurbilekoak ez direnek sarritan nahasten dituzten herriak dira, Urola ibaiak soilik banantzen baititu. Biztanleriari dagokionez, 16.000 biztanle inguru daude bi herrien artean, 2019ko datuen arabera.

Nire praktikaldia, lau urteko gela batean egin dut. Hasiera batean 16 ume zeuden, 9 neska eta 7 mutil. Gabonak baino lehen, beste mutil berri bat gelara etorri zen. Beraz, guztira 17 haurren behaketa egin dut. Lan honetan, parte-hartzaileen anonimatoa mantendu nahian haur bakoitzaren izena kodigo batengatik aldatu da. Hori horrela, kodeak neskentzat honako hauek N1, N2, N3, N4, N5, N6, N7, N8 eta N9 izan dira. Eta mutilentzat, berriz, honako hauek: M1, M2, M3, M4, M5, M6, M7 eta M8.

Ume hauek, familia, erlijio, maila sozio-ekonomiko, etnia eta kultura ezberdinetakoak dira. Ikasle gehienak autoktonoak dira, baina geroz eta atzerritar gehiago daude, eskolako aniztasuna areagotuz.

Ikastetxean, konfiantzazko pedagogia aplikatzen hasi dira kurtso honetan. Kasu honetan, urte berdineko gelen arteko zirkulazio librea egitea erabaki dute. Hori horrela, gela bakoitzari funtzio bat eman diote: arte gela, hizkuntza eta jolas sinbolikorako gela eta matematika gela.

Zorionez, praktikaldi hau egiteko hizkuntza eta jolas sinbolikorako gela egokitu zait. Beraz, nire gelako haurren jolas sinbolikoaren jarraipen zehatzago bat egiteko aukera izan dut.

4.2. GrALa EGITEKO JARRAITU DEN PLANIFIKAZIOA ETA KRONOGRAMA GrALa egiteko jarraitu den planifikazioa eta antolakuntza 1.taulan agertzen da.

1. taula: GrAlaren antolakuntza

DATA	EGITEKOA
2019/10/15	Marko teorikoa osatzeko lehenengo bilaketa eta erreina motza egin
2019/10/29	Behaketa txantiloia zirraborra
2019/11/15	Marko teorikoaren zirraborra
2019/12/16	Lehenengo zuzenketak eta marko teorikoaren bigarren zirraborra
2019/01/25	Behatutako informazioa jaso eta antolatu
2020/03/20	Metodoa Idatzi
2020/03/26	Behatutako informazioa aztertu
2020/04/01	Behaketa txantiloia egokitu
2020/04/08	Emaitzak idatzi
2020/04/15	Marko teoriko. Metodologia, helburuak eta emaitzen zirraborra
2020/04/17	Ondorioak idatzi
2020/04/29	Lana berriro antolatu
2020/05/15	Lan osoaren zirraborra entregatu
2020/05/28	Lanaren zuzenketak entregatu
2020/06/16	Azken bertsioaren entrega

4.3. INFORMAZIOA BILTZEKO ERABILITAKO TRESNAK

Atal honetan, hurrek egindako jolas sinbolikoaren informazioa jasotzeko erabili ditudan tresnen deskribapena agertuko da. Behaketa egin bitartean bi tresna erabili ditut: behaketa txantiloia eta egunerokoa.

4.3.1. Behaketa txantiloia

Txantiloia honetan (ikus eranskin 1), 5 atal nagusitzen dira. behaketa honetan parte hartu duten hurren izenak, estereotipoek markatutako neskenentzako jolasak, estereotipoek markatutako mutilentzako jolasak, taldekatzeak eta liskarrak. Bestalde, beheko atalean, oharrak idazteko tarte bat dago, gelan zerbait berezia edo deigarria gertatzean apuntatu ahal izateko. Estereotipoek markatutako neskenentzako jolasen

barruan, aitatxo-amatxo edo familiak osatzea, sukaldetxoak, printzesak, apaintzeko jolasak... sartuko lirarteke. Estereotipoek markatutako mutilentzako jolasetan berriz, akzioa suposatzen dutenak, jolas belikoak, kotxeak, superheroiak... daude.

Taldekatzeari dagokionez hiru ataletan banatzea erabaki dut: banaka, binaka edo taldeka (3 edo gehiago lagun) . Horrela, mutilek eta neskek euren jolasetan zer nolako taldekatzeko joera duten eta horrek paper ezberdinak betetzera eramaten dituzten aztertzeko aukera izan dut. Liskarren atalean, ume bakoitzak saioan zehar liskarrak izan dituen ala ez ikusteko aukera ematen du eta horrekin batera oharretan zer gertatu den eta zergatik aztertu daiteke.

Txantiloia hau, haurrak jolas librean ibiltzen ziren bitartean egiten zituzten jolasak behatuz betetzen joan da, taulako kasiletan X batekin markatzen eta oharrak eskuz apuntatzen. Ondoren, taula hori ordenagailura pasa da, haur bakoitzaren generoari dagokion koloreekin bete da, informazioa modu bisuarekin ikusteko asmoarekin.

4.3.2. Egunerokoa

Egunerokoa osatzeko zenbait parametro nagusi hartu dira kontuan: estereotipoek markatzen dituzten neskentzako jolasak eta estereotipoek markatzen dituzten mutilentzako jolasak.

Bi parametro nagusi horiek, bost kategorietan banatu dira, estereotipoek markatutakoaren arabera haurrek gehien erreproduzituko zituzten jolasen inguruko aurreiritzietan oinarrituta.

Estereotipoek markatzen dituzten neskentzako jolasak, familia edo etxetxoak, sukaldetxoak, printzesak, medikuak eta bestelakoak kategoriatan banatu dira. Estereotipoek markatzen dituzten mutilentzako jolasak berriz, erremintak, borrokak edo gerrateak, animaliak, superheroiak eta bestelakoak kategorietan zatitu dira.

Ikusten den moduan, bi parametro nagusienak "bestelakoak" deitutako kategoria dute, modu honetan, aurreiritzietan oinarritutako jolasen erreprodukzioa gertatuko ez balitz, jolas horiek kategoria horretan sartzeko.

4.4. *INFORMAZIOA ANALIZATZEKO ERABILI DEN PROZEDURA*

4.4.1. Behaketa txantiloia

Behaketa txantiloia analizatzeko "Excel" programa erabili da. Bertan, datu guztiak sartu eta jolas bakoitzaren batz bestekoa egin dira. Ondoren, datu horiekin jolas bakoitzaren grafikoak egin dira, generoaren arabera zatituta dira jasotako datuak.

4.4.2. Egunerokoaren analisia

Egunerokoaren analisia egiteko kategoria-sistema bat eraiki da, eta paragrafo guztiak kategorizatu dira horren arabera. Erabilitako kategoria sistema 2.taulan agertzen da.

2. taula: egunerokoa analizatzeko erabili den sistema kategoriala

Dimentsioa	kategoria	Egunerokoan zenbatetan agertzen den
Estereotipoen araberako nesken jolasak	Familiak	42
	Sukaldetxoak	11
	Printzesak	6
	Medikuak	7
	Beste batzuk	32
Estereotipoen araberako mutilen jolasak	Erremintak	10
	Borrokak	9
	Animaliak	9
	Superheroiak	3
	Beste batzuk	37

5. EMAITZAK

Atal honetan, 10 saiotan lortutako emaitzak agertuko dira. Behaketa taulan agertzen diren itemak (generoaren araberako jolasak, taldekatzeak eta liskarrak) kontuan harturik antolatuta da atal hau, eta era berean egunerokoan jasotakoarekin osatu da informazio hori.

5.1. BEHATUTAKO SAIOAN EMAITZA


Behatutako saio bakoitzaren txantiloia eranskinetan aurkitu daiteke, modu bisualagoan zer gertatu den ikusi ahal izateko. Mutilak kolore urdinean eta neskek kolore arrosan adierazita agertzen dira. Hau da, bakoitzaren genero estereotipoei bat datorren kolorean agertuko dira. Atal honetan, saio guztietan gertatutakoaren inguruko emaitzak jaso dira eta genero estereotipoek markatutakoaren arabera aztertuko dira, bi atal nagusietan banatuta: estereotipoek markatzen dituzten neskentzako jolasak eta estereotipoek markatzen dituzten mutilentzako jolasak .

5.1.1. Estereotipoek markatzen dituzten neskentzako jolasak:

5.1.1.1. Familiak edo etxetxoak

Jolas mota hau haurren artean gehien errepikatu zena izan zen. Grafikoan ikusi daitekeen moduan, jolas honetan gehien bat neskek ibili ziren %81 (ikusi 1 grafikoa). Gainera, neska batek, ia egunero jolas honetan jolastu zuen eta beti amatxoren papera antzeztuta.

1.grafikoa:familia edo etxetxoak



Bestalde esan daiteke, jolas honetan talde handietan edo binaka egiteko joera egon dela, nahiz eta batzuetan neska edo mutilen batek bere kontu panpin batekin jolastu. Adibidez, bigarren egunean hau gertatu zen:

“N2, N7 eta N8 amatxo eta aitatxorena egiten jolasten egon dira. N8k amatxoren papera egiten zuen eta N2 eta N7ri gelan dagoen ohetxoetan sartzeko agindu die. Berak ondoren, ohean zegoen mantarekin tapatu ditu N2k, M7 aitatxoren papera egiten ari zela adierazi dit, baina nik beste jolasetan ari zela ikusi dut. Beraz, beraiekin aitatxo eta amatxorena egiten jolasten ari zen galdetu diot eta baietz esan dit, bera aita zela eta lanean zegoela “slime” egiten. Bestalde, N5ek, aurreko saioan bezala amatxoren papera hartu du, panpina besoetan hartuta eta etxeko lanak egiten.” (2.saioa, 2019ko azaroaren 28a)

Horrez gain, bai neska eta bai mutilek panpinak kamiseta azpian gordetzen zituzten haurdun egongo balira bezala egiten. Nesken artean ohikoagoa zen hori egitea, nahiz eta mutilek ere noizean behin horrelakoak egin, baina nik uste, jolas honek ez duela zentzu bera hartzen neska eta mutilen artean. Zortzigarren egunean esaterako, honakoa gertatu zen:

“N2 eta N7 gelan dauden trapuzko panpinak kamiseta azpian sartu dituzte eta M2 eta M5-arengana joan dira, “tripitan umetxo bat dutela” esanez. Hauek, lagunak ikustean, beste bi panpin bilatu eta gauza bera egin dute. Hala ere, M2 umetxo bat tripan zuen galdetu diodanean, panpina gordetzen ari zela esan dit, beste lagunak ez hartzeko” (8.saioa, 2020ko urtarrilaren 14a)

Jolas mota honetan gertatu diren liskar gehienak rol banaketarekin erlazonatutakoak izan dira, saio batean adibidez honakoa gertatu zen:


“N2, eta N7 amatxorena egiten jolasten egon da. Baina, N7 ez zegoen N2ak egokitutako paper horrekin oso ados. Beraz, liskarra sortu da beraien artean eta azkenean bakoitzak panpin bat hartu du eta panpinen amarena egiten jolastu dute” (1.saioa, 2019ko azaroaren 26a)

Jolas honi dagokionez, argi ikusi da neskek euren genero estereotipoak erreproduzitu dituztela, nahiz eta ehuneko oso txikian mutilek ere jolas honetan parte-hartu.

5.1.1.2. Sukaldetxoak

Jolas mota honetan jolastu ziren haurren gehiengoa mutilak izan ziren %61 (Ikusi 2 grafikoa). Jolas hau ere, askotan errepikatu zen eta gehienetan hurrek banaka edo gehienez binaka egin zuten.

2.grafikoa:sukaldetxoak



Jolas honetan gehien bat hurrek bazkaria prestatzen ari zirela irudikatzen zuten, baina batzuek platerak eta sukaldea garbitzen ari zirela ere egiten zuten. "Familia edo etxetxoan" jolasean gertatzen zen moduan, mutilek eta neskek jolas hau modu ezberdinean ulertzen dutela uste dut. Kasu honetan, ekintza horiek neskei esleituko ekintzak direnaren asimilazioagatik izan daitekeela uste dut. Adibidez lehenengo saioan hau gertatu zen:

"M7 bakarrik jolasten egon da. Bera, sukaldetxoan bazkaria prestatzen egon da eta amaitzean sukaldea garbitzen zuela irudikatu du. Zer egiten ari zen galdetu diodanean, berak amatxorena egiten ari zela adierazi dit." (1. saioa, 2019ko azaroaren 26a)

Bestalde, kasu berezi bat ikusteko aukera izan nuen:

"M8. Bere lehenengo eguna izanda, lotsatuta egon da eta zirkulazio libreko orduetan bakarrik jolasten egon da, sukaldetxoan txokoan. Tea prestatzen ari zela adierazi dit" (5.saioa, 2019ko abenduaren 19a)

Musulmanen kulturen ohikoa da gizonezkoek tea prestatzea, eta bera halakoa zen. Beraz, nahiz eta gure kulturen sukaldetxoak nesken estereotipoekin bat etorri, bera ez zituen neskerenak diren estereotipo horiek erreproduzitzen. Liskarrei dagokionez, gehien bat espazioaren erabileragatik izan da, hurrek ez zutelako besteekin lekua partekatu nahi. Seigarren saioan esaterako honakoa gertatu zen:

“M6 sukaldetxoan jolasten egon da. M8k ere, espazio hori erabili nahi zuen, baina M6 ez zegoen batere ados berarekin txokoa konpartitzeko eta liskarra sortu da. Beraiekin hitz egin eta gero, paper ezberdinak banatzea adostu dute, M6k bazkaria prestatzen eta M8k mahaia jartzen eta platerak garbitzen.” (6.saioa, 2019ko abenduaren 19a)


Amaitzeko, esan beharra dago jolas honen eta familien arteko jolasaren lotura oso estua zela. Izan ere, askotan bi gauzak batera egiten ari zirela ikus zitekeen. Zortzigarren egunean adibidez, hau ikusi nuen:

“M3, N1, N5 eta N9 sukaldetxoan jolasten egon dira. Bazkaltzeko patata tortilla egiten ari zirela esan didate, ondoren beraien umetxoei (panpinei) bazkaltzen emateko. M3k, umetxo txikia zela adierazi du berriro ere, baina amatxori bazkaria egiten lagundu behar ziola esan du. Hala ere, N5 oso azkar aspertu da eta bera bakarrik panpin batekin jolastera joan da, aurreko saio gehienetan egin duen moduan.” (8.saioa, 2020ko urtarrilaren 14a)

5.1.1.3: Printzesak

Jolas hau espero zena baino gutxiago agertu da. Kasu honetan, neskek izan dira jolas honetan ibili diren ehuneko handiena %82 (ikusi 3 grafikoa).

3.grafikoa:printzesak



Neskek jolas hau binaka edo taldeka egin dute, baina mutilen kasuan bakarka egiten zuten. Izan ere, oso gutxi parte hartu zuten jolas honetan. Nesken artean, oso ohikoa zen, “Disney”-ko printzesak zirela adieraztea. Adibidez, hirugarren saioan honakoa ikusi nuen:

“N2 eta N7 mozorroekin jantzita, “Frozen” pelikulako printzesak zirela eta magia egiten zutela esan didate” (2019ko abenduaren 3a).

Jolas honetan, mutilek nesken estereotipoak erreproduzitzeko lotsa edo beldurra dutela ikusi ahal izan nuen. Gainera, batzuetan mutilen artean liskarrak sortzen ziren, mutilak

diren beste gelakideak horretan jolasten ziren mutilez barre egiten zutelako. Aurreko adibidean bezala, gertaera hau ere hirugarren saioan izan zen:

“Mozorroen kutxan zeuden mozorroak hartu eta neska eta mutil ezberdinei galdetu diet ea jarri nahi zuten. Mutil guztiek, M7 kenduta, printzesa mozorroa ez zutela jantzi nahi esan didate. Baina, M7 horrekin jantzita ikusi dutenean, besteek ere frogatzeko gogoia izan dute. Hala ere, beste gelako mutil batek barre egin du eta M7ri jantzi hori neskena zela esan dio, baina M7k ezetz esan dio eta bere jolasean jarraitu du.” (3.saioa, 2019ko abenduaren 3a)

Hori geratu eta gero, honakoa jaso nuen:

“M7 printzesa mozorroekin jolasten aspertu denean, gelara itzuli eta spidermanen mozorroa jarri du. Hori egitean, gelako mahaietara igo da, spiderman zela garrasika esanez.” (3.saioa, 2019ko abenduaren 3a)


Umea ezagutzuz ez nuke esango inongo aldarrikapena zenik, baina izan liteke.

Jolas mota hau, emakumezkoen feminitatea eta horrekin bat datozen estereotipoak, aurreko jolasak baino markatuagoak dituela uste dut. Horregatik, jolas honetan mutilak ibiltzean beraien kideen partetik kritika gehiago jaso dituztela uste dut.

5.1.1.4:Medikuak

Jolas mota hau ere espero nuena baino gutxiagoetan ikusi nuen. Kasu honetan, neskak izan dira jolas honetan ibili diren gehiengo %69 (ikusi 4.grafikoa).

4.grafikoa:medikuak



Jolas mota hau normalean taldean egiten zuten, baina noizean behin binaka ere jolasten ziren. Liskarren aldetik ez zen oso jolas polemikoa, baina hala ere batzuetan liskarrak ikusten ziren. Bestalde, neskak eta mutilak batera jolasteko beharra dago, gehienetan mutilek medikuaren papera antzetzten zutela eta neskek umetxoa edo txakurtxoa medikura eramaten zuten amatxorena. Seigarren egunean honakoa ikusi nuen:

“M1 eta N3 medikuetara jolasten ikusi ditut. M1 medikuaren papera egiten zuen eta N3 gaixo zegoen umetxoarena. M1k zizta egin nahi zion N3ri, baina honek ez duenez nahi izan, jolasa bertan behera utzi eta beste gela batera joan da. Orduan, N7 eta N2, M1ekin jolastera hurbildu dira. N2k, bere umetxoa medikura eramaten zuen amatxo baten papera hartu du. N7k berriz, eskuan mina hartu duela esan du eta medikura joan behar zuela hori sendatzeko.” (6.saioa, 2019ko abenduaren 19a)

Kontrako kasuak ikusteko aukera ere izan nuen:


“N1, M3 eta N9k medikuen kutxa eta gelako panpin batzuk hartu dituzte. N9k, medikuaren papera hartu du eta gelan bi aulkiekin ospitale bat sortu du. N1k eta M3k berriz, panpina bere umetxo gaixoa zela eta sendatzera eraman behar zuela esan didate. N9rengana irisitsi direnean, honek fonendoskopioarekin panpinaren egoera aztertu du eta ondoren jarabe bat hartzeko esan die.” (2.saioa, 2019 azaroaren 28a)

Kasu horretan, medikuarena egiten jolasten ari zen mutil hori, beti bigarren planoan geratzen diren paperak antzezten zituen. Beraz, ez nau harritzen kasu honetan ere “protagonistaren” papera ez hartzea. Beraz, mutilek nahiz eta jolas honetan parte-hartze gutxiago izan, egiten dutenean, orokorrean, protagonistak direla esan daiteke.

5.1.1..5:Bestelakoak

Grafikoan ikusi daitekeen moduan, neskak izan dira kategoria honetan parte hartu duten gehiengoa %80 (ikus 5 grafikoa).

5.grafikoa:bestelakoak



Kategoria honetan agertu diren jolasen gehiengoa makillajea edo apaintzeko diren jolasak izan dira eta normalean taldeka egiten zituzten. Hau da, emakumeei esleitutako estereotipoekin lotutako “edertasun kanonak” markatzen dituztenak. Adibidez, seigarren egunean honakoa gertatu zen:

“N1k ile-apaindegi txoko bat sortu du. Mahai baten gainean, orraziak, jostailuzko ile-lehorgailua eta bestelako materiala utzi du eta ondoan bi aulki jarri ditu, bata bestearen paperean. M3, M5 eta N9, ile-apaindegian txanda hartu dute eta ondoren N1ek ilea moztu eta apaintzen ziela irudikatu du” (6.saioa, 2019ko abenduaren 19a)

Hala ere, irudimena gehiago erakusten duten jolasak ere agertu dira:

“N1, N5 eta N9k koltxonetak igeri leku bat zirela irudikatu dute eta oportetan zeudela esan dute. Eguzkia hartzen zutela irudikatzen zuten eta aldiro uretan igeri egiten zutela.” (7.saioa, 2020ko urtarrilaren 10a).

“N3, N6 eta N8k mozorro kutxan zeuden betaurrekoak, txanoak eta poltsak jantzi dituzte eta aktorea famatuak zirela irudikatu dute.”(8.saioa, 2020ko urtarrilaren 14a).

Jolas horietan, printzesen kasuan gertatzen zen moduan, liskar gehienak mutilek izan zituzten. Batzuetan, makilatzea nesken gauzak direla esaten zieten eta ez zuten mutilek horretan jolastea nahi. Bederatzigarren egunean esaterako, honakoa gertatu zen:


“M7 oso triste etorri da niregana, N2 eta N7k ez ziotelako beraiek etxetik ekarritako makillajearekin makilatu nahi. Beraiekin hitz egitera gerturatu naizenean, N2k makillajea neskentzako bakarrik zela esan dit. Arraroa egin zait, izan ere, patio orduan askotan hirurak horretan ibiltzen baitira eta inoz ez da horrelako arazorik egon. Beraz, beraiekin hitz egin dut eta neska edo mutila izan makilatzeko eskubidea dutela azaldu. Hala ere ez dute kasu gehiegirik egin eta azkenean, M7 nik makilatu dut, gelan genituen inauteriko margoekin eta pozik geratu da” (9.saioa, 2020ko urtarrilaren 16a).

5.1.2. Estereotipoek markatzen dituzten mutilentzako jolasak:

5.1.2.1:Erremintak

Jolas mota honetan mutilak izan dira gehien jolastu dutenak %82 (ikusi 6.grafikoa).

6.grafikoa:erremintak



Taldekatzeari erreparatuz, gehienetan banaka jolasten zuten, baina noiz behinka bikoteka ere egiten zuten. Bestalde, erremintekin jolasten zuten gehienetan, gelako altzairuak konpontzen zituztela irudikatzen zuten. Adibidez bi saio ezberdinetan honakoa ikusi zen:

“N5k erreminta kutxa hartu eta mahaia konpontzen ari zela egin du. Ondoren, gelako bestelako altzairuekin gauza bera egiten hasi da. M4k hori ikustean gelako gauzak konpontzen lagunduko ziola esan dio” (5.saioa, 2019ko abenduaren 17a)

“N4, M4 eta M5ek erreminta kutxa hartu dute eta sukaldeko txokoan dauden labeak eta armairuak konpontzen hasi dira” (10.saioa, 2020ko urtarrilaren 21a).

Liskarren aldetik ez zen oso jolas polemikoa, baina askotan erremintak altzairuen kontra kolpatzen zituzten, zarata handia sortuz. Lehenengo egunean, esaterako honakoa gertatu zen:

“Alde batetik, mutil taldetxo bat zegoen (M1, M2, M3, M4 eta M5). Hauek, erremintan kutxa hartu dute eta gelako pareta baten kontra hiltzeak jartzen arituko balira bezala ibili dira, izugarrizko zarata ateratzen.” (1.saioa, 2019ko azaroaren 26a)


Beraz, jolas honek ez du polemika handia sortu, baina egiten zuten zarata dela eta gelako giroa oztopatzen zen eta batzuetan desatsegina izatera iristen zen.

5.1.2.2: Borrokak edo gerrateak

Borroka edo gerrate jolasetara jolastu zuten gehiengoak mutilak izan ziren %60 (ikusi 7.grafikoa). Normalean, jolas hau bikoteka egiten zuten, nahiz eta ondoan jolas bera egiten ari ziren beste bi lagun egon. Lehenengo egunean hau ikusi zen:

“M1 eta N4 borroketan jolasten egon dira. Hasiera batean, ez dituzte objekturik erabili, baina gero irakaslearen mahai gainean zeuden erregelak hartu dituzte, ezpatak balira bezala erabiltzeko” (1.saioa, 2019ko azaroaren 26a).

7.grafikoa:borrokak



Batzuetan, mozorroak erabiltzen zituzten jolas mota hau egiteko. Adibidez:


“M1 eta N4, piraten mozorroak jantzi dituzte eta beste ekintza baterako psikomotrizitate gelatik ekarritako materiala ezpatak eta pistolak balira bezala erabiltzen hasi dira” (8.saioa, 2020ko urtarrilaren 14a).

Jolas oso polemikoa dirudien arren, ez zuen bestelako liskarrik sortzen, baina egia da gelako espazioaren zati handia erabiltzen zutela horretarako, beste jolasetan ari ziren lagunak oztopatuz.

5.1.2.3: Animaliak

Animalien jolasei dagokionez, mutilek parte-hartze handiagoa izan zuten %80.

8.grafikoa:animaliak



Gehienetan, jolas hau taldeka egiten zuten, baina batzuetan baten batek bakarrik ere jolasten zuen eta aurreko jolasean gertatzen zen moduan. Estereotipoek markatutako nesken jolasetan bezala, hauetan ere jolasen arteko loturak gertatzen ziren. Kasu honetan, animalien kareta erabiliz borrokan ibiltzen ziren. Adibidez:

“M3 eta M6, lehoien kareta jantzita zituztela, lau hankatan jarri dira eta lehoien antzera borrokatzen hasi dira” (9.saioa, 2020ko urtarrilaren 16a).

Bestalde, mutilek animaliak irudikatzean mugimendu asko eskatzen duten jolasak egiten bukatzen zuten eta honetarako erabiltzen zuten espazioa oso handia zen, berriro ere gelako giroa oztopatuz. Adibidez, egun askotan jolas hau gertatu zen:

“M6k aurreko saio batean bezala animalien karetekin jolasten egon da. Kasu honetan zezen baten kareta jarri du eta M1, M2, M4 eta M5rekin ‘San Ferminetara’ jolasten egon da. Zezen kareta zuenak, beste lagunak harrapatu behar zituen.” (4.saioa, 2019ko abenduaren 4a)

Neskek berriz, horrelakoak egiten zituzten:

“M3, N1, N3, N6, N8 eta N9K animalien kareta hartu dituzte eta lehoi familia bat zirela esan dute. N8 eta N6 amatxoren papera egin dute (ez zegoen aitaxorik, biak amak ziren), N1, N3 eta N9 alabak ziren eta M3 umetxo txikia zela esan du. Seiak, liburutegi txokoa etxetxo bat egin dute, bertan familia osoa bizi ahal izateko” (2019ko abenduaren 3a).

Beraz, beste jolas batzuen kasuan bezala, esan daiteke neskek eta mutilek ez dutela berdin bizitzen edo ez dutela modu berdinean ulertzen.


Jolas honek, zuen liskar handirik sortzen, baina noizean behin gertatzen ziren. Gainera, askotan hauek genero estereotipoekin bat datozen liskarrak izaten ziren. Adibidez hirugarren egunean ere hau gertatu zen:

“N4k zezen kareta hartu du eta M6k, berea zela esan dio. Ez dionez eman, liskarra sortu da. Zer gertatzen zen galdetzera hurbildu naizenean, M6k N4k ez ziola kareta eman nahi adierazi dit, orduan gelako gauzak partekatzeko direla azaldu diot. Baina, bere erantzuna “zezenak ez dira neskak” izan da eta berriro ere haserretu da, N4k kareta utzi dion arte” (2019ko abenduaren 3a).

Beraz, jolas honetan nesken eta mutilen arteko desberdintasunak ikusteko aukera handia ematen du. Izan ere, bakoitzak bere zelaira eramaten du jolasa.

5.1.2.4: Superheroiak

Jolas honek badu bere protagonista, mutilak %87 (ikusi 9 grafikoa). Jolas honetan, oso neska gutxi ibili dira, neska bakarra ikusi zen.



Normalean, banaka jolasten zuten, gelan zeuden “spiderman” eta bestelako mozorroak erabiliz. Hala ere, batzuetan ez zuten mozrorrik behar eta gelan zehar saltoka eta superheroiaren izenak garrasika esanez ibiltzen ziren. Horrek ere, gelako giroa oztopatzen zuen. Adibidez:

“M7, tutu antzeko gona bat jantzi du eta horren gainean, mediku mozorroaren mantala berdea. Ondore, gela osoan zehar bueltaka hasi da, muskuluak erakusten eta 'Hulk' zela esanez” (8.saioa, 2020ko urtarrilaren 14a).

“M2k Spidermanen mozorroa jantzi du eta hegan egiten zuela irudikatzeko aulki batera igo eta behin eta berriro salto egiten hasi da” (9.saioa, 2020ko urtarrilaren 16a).

Beste batzuetan, taldeka ibiltzen ziren eta fantasiazko egoerak sortzen zituzten, saio honetan gertatutakoa esaterako:


“N4, M1, M4 eta M5 elkarrekin jolasten egon dira. Nik “Harry Potter” kamiseta bat jantzita eraman dut eta horregatik galdetu eta gero, magia egiten zutela irudikatzen hasi dira. M4k eta N4k, sukaldetxoan dauden goilara eta labanekin magia egiteko baritak irudikatu dituzte. M1 eta M5 lagunek egiten zuten magia horretaz ihes egiten zutela zirudien” (9.saioa, 2020ko urtarrilaren 16a).

Beraz, jolas honetan aurreko batzuetan bezala gelako giroa oztopatzen zen, umeeek mugimendu asko egiten zutelako eta batzuetan garrasi egiten zutelako.

5.1.2.5: Bestelakoak

Kategoria honetan ere mutila izan dira parte-hartze gehien izan dutenak %86 (ikus 10 grafikoa).

10.grafikoa:bestelakoak



Kasu honetan, jolas ezberdinak agertu dira. Batzuetan, mutilen genero estereotipoekin bat datozenak. Adibidez:

“M6 bakarrik jolasten egon da. Ispiluaren aurrean bizarra mozten arituko balitz bezala egon da. Galdetu diodanean ‘guapo’ jartzen ari zela esan dit, aitaxok egiten duen moduan” (3.saioa, 2019ko abenduaren 3a).

“M8, lego piezak erabiliz, argazki kamera antzeko bat egin du eta gela osoan zehar bere ikaskideei argazkiak ateratzen zizkiela antzeztu du” (9.saioa, 2020ko urtarrilaren 16a).

Bestalde, animalien edo superheroien jolasean gertatzen zen moduan, mugimendu asko eskatzen zuten jolasak egiten zituzten. Bigarren saioan esaterako, honakoa gertatu zen:

“M4, M5 eta M6k mozorroen kutxan zeuden txanoak jantzi dituzte. Ondoren, ilaran jarri dira, bata bestearen atzean kamisetatik helduta. Zarata egiten hasi dira, sirena baten antzeko soinuak eginez. Zertan ari ziren galdetzean, poliziak zirela esan didate eta kotxeko sirena piztuta zutela oso azkar gidatzen ari zirelako” (2019ko azaroaren 28a).

Horrez gain, ezkutaketa eta fantasia jolasak ere agertu ziren. Seigarren egunean honako hau gertatu zen:

“M2k gelako ohetxoan dagoen mantarekin eta mahia batekin kobazulo bat egin du. Berak adierazi duenaren arabera, kanpoan munstroak zeunden eta kobazulo horren barruan ezin ziren sartu. Denboratxo bat hor bakarrik egon da, baina aspertu denean, M4 eta M7en bila joan da, beste gela batera, horiek bere kobazuloa ikusteko. Orduan, hauek ere M2K asmatutako jolasean batu dira.” (6.saioa, 2019ko abenduaren 19a)

Beraz, kasu honetan ere, mutilek zarata egin eta gelako espazio handiagoa erabili dute jolas hauek eginez.

5.2. EMAITZA OROKORRAK

Genero bakoitzean lortutako emaitzen arteko konparaketa egiteko, item bakoitzaren grafiko bat egin da, genero bakoitzaren emaitzak ehunekotan konparatu ahal izateko.


Hasteko, genero estereotipoen arabera esleitutako jolasen konparaketa. Neskentzat kontsideratzen diren jolasetan ibili ziren %75 neskak izan ziren eta %25 mutilak. Beraz, neskak dira jolas hauetan jolasten diren gehiengoa (ikusi 11 grafikoa).

11.grafikoa: estereotipoek markatutako neskenentzako jolasak




Mutilentzat kontsideratuta dauden jolasetan ibili zirenen artean berriz (ikusi 12 grafikoa), %81 mutilak izan ziren eta %19 neskak. Beraz, kasu honetan mutilen genero estereotipoetan oinarritutako jolasetan ibilitako gehiengoa mutilak izan dira.

12 .grafikoa: estereotipoek markatutako neskenentzako jolasak




Taldekatzeari dagokionez, banaka (ikusi 13 grafikoa) jolastu zuten %78 mutilak izan ziren, beste %22 neskak. Beraz, mutilak izan ziren banaka jolastu zutenen gehiengoa.

13 .grafioa: banaka




Bestalde, binaka (ikusi 14 grafikoa) jolastu zutenen %49 neskak izan ziren eta %51 mutilak. Beraz, kasu honetan mutilak izan ziren binaka jolasten zuten ehuneko gehiengoa.

14.grafikoa: binaka




Amaitzeko, taldeka (ikusi 15 grafikoa) jolasten ibili ziren %56 neskak izan ziren eta mutilak %44. Beraz, kasu honetan neskak izan ziren taldeka jolastu zuten gehiengoa.

15.grafikoa: taldeka



Liskarrei erreparaturaz (ikus 16 grafikoa) ikusi dezakegu neskak eta mutilek ehuneko berean liskarrak izan dituztela. Hala ere, mutilek zarata eta mugimendu asko eskatzen duten jolasak egiten zituzten, gelako giroa apurtuz.

16.grafikoa: liskarrak



6. ONDORIOAK

Atal honetan, emaitzak marko teorikoan azaldutakoarekin bat datozen eta bertatik ateratako ondorioak agertuko dira.

6.1. EZTABAIA

Lan honetan zehar ikusi den moduan, jolasa haurrek ikasteko eta mundua esploratzeko modua da. Honi esker, beraien pentsamendua garatu eta izaera eraikitzen dute (Fusté eta Bonastre, 2010). Horrekin batera, haurrek euren generoari esleitutako rol ezberdinak erreproduzitu eta barneratzen dituzte (Puerta eta Gonzalez, 2015).

Gaur egungo gizartean, generoen arteko berdintasunerako bidea eraikitzen ari garela, jende askok berdintasun hori erabat lortu dela uste du. Baina, genero ezberdintasun horiek oraindik agerikoak dira eta hala ikusi da haurrek egindako jolasak behatzean. Arenas-en (2006) esanetan, haurrek eskolara iritsi baino lehen hainbat estereotipo barneratu dituzte eta horiek ere eskolan bertan bultzatu egiten dira, nahi gabe bada ere.

Lan honetan lortutako emaitzetan ikusi den moduan, gaur egungo haurren erdiak baino gehiago euren genero estereotipoekin bat datozen jolasak egiten dituzte, gizartean dagoen genero ezberdintasuna sustatuz. Hala ere, aldaketa txikiak gertatzen ari direla nabari daiteke. Baina, esan beharra dago haurrek soilik 4 urte dituztela eta Rodríguezek eta Torío (2005) dioten moduan rol horiek hemendik urte batzuetara euren generoari egokitutako paperarekin bateratzea gerta daiteke. Hori horrela gertatzen bada, orain nabaritzen dugun ezberdintasun txiki hori desagertuko litzateke.

Horretaz gain, kulturak neskek eta mutilen arteko genero estereotipoetan eragina duela (Gómez Suárez, 2010) esan daiteke. Izan ere, kasu batean kulturaren erreflexua, argi

ikusi da. Sukaldetxoan tea prestatzen ari zen mutila musulmana da eta musulmanen kulturaren gizona izatekoak dira tea prestatzen dutenak. Beraz, mutil hori naiz eta gure kulturaren nesken estereotipoek markatutako jolas batean ibili, berean bere genero estereotipoekin bat datozen ekintzak erreproduzitu zituen.

Bestalde, esan beharra dago, nahiz eta neska eta mutilen liskarren ehunekoa %50koa izan, mutilak izan zirela genero estereotipoetan oinarritutako liskar gehien izan zituztenak, nahiz eta kontrako kasuak ere antzeman. Gainera mutilek izandako liskar hauek, feminitate oso markatua erakusten duten jolasetan gertatzen zen. Beraz, esan dezakegu bai neskek eta bai mutilek kontrako generoarentzat markatutako estereotipoak betetzen dituztenean gaizki ikusia dagoela. Hala ere, esan beharra dago, Mendoza Cuéllar, (2013) esandakoarekin bat natorrela eta mutilek nesken estereotipoetan oinarritutakoak jolasak egitea kontrakoa baino okerrago ikusten dela.

Taldekatzeari erreparatuz, ikusi da neskek binaka edo taldeka jolasteko joera gehiago dutela mutilekin konparatuta. Nire ustez, egiten dituzten jolasak, familiak esaterako, pertsonaien ezberdinen parte-hartzea eskatzen dutelako da. Mutilek, gainera, mutilek jolas biolentoagoak egin zituzten eta gainera, jolasteko orduan espazio gehiago erabiltzen zuten eta zarata egiten zuten, gelako giroa apurtuz. Jarrera horiek euren genero estereotipoak erreproduzitzen dituztenaren seinale da. Izan ere, beraiengandik horrelako jarrerak izatea espero da (Puerta eta Gonzalez, 2015).

Beraz, orokorrean esan dezakegu umeen portaerek estereotipoek markatutako irudikapenak egiten jarraitzen dutela neurri handi batean. Hortaz, hezkuntzak oraindik ere lan asko egin behar du, gizartearekin batera genero estereotipo horiek apurtu eta gizon eta emakumeen arteko berdintasuna lortu ahal izateko.

6.2. JOLAS BAKOITZAREN ONDORIOAK

6.2.1. Estereotipoek markatzen dituzten neskentzako jolasak

Familia edo etxekoen kasuan gehien jolastu zutenak neskek izan ziren. Hau, gure gizartean emakumeak duen paperagatik izan daiteke. Horren ondorioz, Corbellak (2010) esaten duen moduan neskenganako amatasun sena horrekiko estereotipoak eraikitzen dira. Bestalde, jolas honetan neskekin jolasten zuen mutil bat zegoen, beti bigarren planoan dauden paperak antzetzuz (normalean umetxo txikiarena). Orokorrean mutilekin erlazionatzeko zailtasunak zituela nabaritzen zen, agian horregatik neskekin

jolastean bigarren planoko paper horiek hartzen zituen nonbaiten bere burua kokatu nahian.

Sukaldeen kasuan mutilak izan ziren jolastu zuten gehiengoa. Gizonezkoak etxeke lanetan ikustea egunerokotasuneko egoera normala bihurtzen ari da. Horregatik, gelako mutilenak sukaldetxoan edo aitatxo-amatxorena egiten jolasten ikustea geroz eta ohikoagoa izan daiteke, euren genero bera duen pertsona heldu batek egindakoa imitatzen baitute (Corbella, 2010).

Bestalde, esan beharra dago, ikusten ditugun sukaldari famatu gehienak gizonezkoak direla. Hortaz, sukaldari izatea gizonezkoek bideratutako lanbide gisa har daiteke. Agian, horregatik jolas mota horretan jolastu zuten ehuneko gehiena mutilak izan ziren. Bestalde, esan beharra dago, jolas honetan askotan bi mutil musulman jolasten zutela "Tea prestatzen". Musulmanen kulturaren, gizonezkoek prestatzen dute tea. Beraz, euren genero estereotipoekin bat datozen ekintzak erreproduzitzen ari ziren. Neskek aldiz, jolas hau familiaren jolasekin batera egiten zuten jolas hau eta bazkaria prestatzen zuen amak edo alabaren paperak hartzen zuten, beraz hauek ere estereotipoak betetzen zituzten.

Printsezen jolasak, nire ustez, jolas hau gure gizarteak markatutako feminitatea oso azpimarratua du. Horregatik, jolas honetara jolastu duen gehiengoak neskak izan direla uste dut. Gainera, oso argi ikusi da jolas honetan, mutilek liskarrak izan dituztenak izan direla. Beraz, esan dezakegu ez dagoela ondo ikusia mutilek neskek estereotipoekin bat datozen jolasak egitea. Adibidez: mutil bati printzesa mozorroa jantzeagatik barre egin zioten. Ondoren, "spiderman"-en mozorroa jantzi eta gelan garrasika ibili zen. Umea ezagutuz ez nuke esango inongo aldarrikapena zenik, baina izan liteke momentu horretan, ikaskideek barre ez egiteko horrelako jarrera hartzea.

Medikuen kasuan, orokorrean jolas honetan berriro ere neskak izan dira jolas honetan jolastu duten gehiengoa. Hala ere, esan beharra dago mutilek jolas honetara jolastean medikuaren papera egiten zutela ia beti. Beraz, helduen munduan bezala, umeen jolasetan mutilek ere neskek baina protagonismo gehiago hartzen dutela esan daiteke.

Bestelako kategoria honetan, nesken artean gehien agertu den jolasa makillajea eta apaindegiak izan dira. Hau da, emakumeen edertasun kanonak betetzeko bideratuak daudenak. Hortaz, hemen ere oso argi ikusi daiteke genero estereotipoak betetzen direla.

6.2.2. Estereotipoek markatzen dituzten mutilentzako jolasak

Erreminten jolasean ere mutilak izan dira gehien ibili direnak. Gainera, zarata ateratzeko aitzakia zen gehienetan. Horretaz gain, neskak jolastean mutilak laguntza eskaintzen zioten, helduen errealitatean gertatzen den antzera. Beraz, jolas honetan ere estereotipo generoak bete dira.

Borrokek eta gerrateek, berriz, agerian utzi dute mutilek biolentzia gehiago erabiltzen dutela. Izan ere, jolas honetara jolastu zuten gehienak mutilak izan ziren. Beraz, genero estereotipoak erreproduzitu dituzte jolas mota honetan.

Animaliena egiten mutilak izan dira gehien jolastu dutenak. Gainera, batzuetan animalien antzera borrokatzeko erabiltzen zuten jolas mota hau. Beraz, bete betean erreproduzitzen dituzte beraien genero estereotipoak.

Neskek ere jolas honetan parte hartu zuten, baina beraien kasuan animalia familiak egiteko erabiltzen zuten. Beraz, beraien kasuan neskentzako markatutako genero estereotipoak erreproduzitzen zituzten.

Superheroien jolasak ere mutilek euren genero estereotipoak betetzen dituztela agerian utzi du. Izan ere, jolas mota honetan, mutilen genero estereotipoek esandako gehiena bete dute: espazio asko erabili, zatara atera...

Bestelako kategoria honetan jolastu zuen gehiengo mutilak izan ziren. Nesken kasuan gertatzen zen moduan hemen ere mutilen edertasun kanonekin bat datozen estereotipoak ikusi dira. Beraz, hemen ere bete betean genero estereotipoek markatutako erreproduzitzen dute.

6.3. ONDORIOEN LABURPENA

Laburbilduz honako ondorio hauek atera ditut:

- Umeen portaera genero estereotipoek markatutakorekin bat datoz
- Mutilek protagonistak diren paperak antzezten dituzte estereotipoek markatutako nesken jolasetan. Alderantzizko kasuan berriz, neskak 2.planoan geratzen dira.
- Mutilek feminitatea oso markatuta duten jolasak egitea gaizki ikusia dago eta horregatik liskar gehiago dituzte, neskekin konparatuta, kontrako sexuari dagozkion estereotipoak egitean
- Neskek pertsonaia gehiago behar dituzten jolasak egiten dituzte, horregatik taldean jolasteko joera gehiago dute mutilekin konparatuta

6.4. HELBURUEN LORPENA

Lan honekin lortu nahi ziren helburuak hiru ziren: Haurrek jolas sinbolikoan estereotipoen erreproduzioak egiten dituztela baieztatzeko saiakera egitea, haurrek beste sexuari esleitutako estereotipoetan oinarritutako jolasak egiten dituzten aztertzea eta estereotipoetatik ateratzean zer nolako erantzunak jasotzen dituzten aztertzea.

Nik uste, egindako behaketarekin helburua guztiak lortu ditudala. Izan ere, emaitzetan oso argi ikusi da neskek eta mutilek euren generoari dagozkion estereotipoak erreproduzitu dituztela gehien bat, nahiz eta noizean behin beste generoari dagozkionak egin. Bestalde, genero estereotipoek markatuko roletatik ateratzea ondorioak dituela ikusi dut, mutilen kasuan gehien bat eta batez ere feminitatea oso markatuta duten jolasak egitean, barreak eta bazterketa jasatea suposatu baitie. Nesken kasuan ere, horrelakoak gertatu arren oso kasu puntualak izan direla uste dut.

Beraz, hori guztia kontuan izanda, argi ikusi da haurrek, nahiz eta oso adin txikikoak izan, euren generoa eta hari esleitutako rola barneratu eta erreproduzitzen dituztela eta gainera, askok horietatik ateratzen direnekin desadostasuna sentitu eta adierazi egiten dutela.

7. HOBEKUNTZA PROPOSAMENAK

Behin lana amaituta eta ikuspegi ezberdinetik begiratuta, zerbait hobetzekotan aztertutako haurren lagina izango zen. Alde batetik, haur gehiago aztertzea egokia izango litzatekeela uste dut, informazio gehiago lortu ahal izateko. Bestalde, denbora luzeagoan behaketa egitea gustatuko litzaidake, horrela haurren genero identitate eraikuntzaren garapenaren ideia konkretuagoa izango nuke eta ondorioak ateratzeko ondorio zehatzak atera ahalko nituzke.

Azkeneko hori zaila denez, GRAL-a egiteko dagoen denboragatik, adin ezberdinetako haurrak behatzea ere ideia ona iruditzen zait. Modu honetan, adin ezberdinen arteko konparaketak egin ahalko nituzke. Horrela, urteak aurrera joan ahala zer nolako ezberdintasunak gertatzen diren ikusteko aukera izango nuke.

8. ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOA

Aucouturier, B. (2004). *Los fantasmas de acción y la práctica psicomotriz*. Bartzelona. GRAÓ.

Aránega Iglesias, I. M. (2016). *Emociones y juego simbólico en Educación Infantil: propuestas de innovación en el aula* In A. M.C.Perez-Fuentes, J.J. Gáquez, M.M. Morelo, A. Martos, M.M. Simón, A.B. Barragán. (koord.) *Variables Psicológicas y Educativas para la intervención en el ámbito escolar* (pp 93-100). España. ASUNIVEP.

Arenas, G. (2006). *Triunfantes perdedoras. La vida de las niñas en la escuela*. Bartzelona: GRAÓ.

Becerra, M. eta Melo, O. (2012) Identidad sexual y desarrollo de la personalidad. AMEI. Webgune honetatik berreskuratuta (2019-10-16): <http://www.waece.org/biblioteca/pdfs/d006.pdf>

Castillo-Mayén, R. eta Montes-Berges, B. (2014). Análisis de los estereotipos de género actuales. *Anales de Psicología/Annals of Psychology*, 30(3), 1044-1060.

Coll-Planas, G. (2010). *Dibujando el género*. Bartzelona-Madril: Egales.

Corbella, J. (2010). Tengo una muñeca vestida de azul. Ediciones Digitales HOY S.L.U. Diario HOY de Extremadura, 2 diciembre 2010. Webgune honetatik berreskuratua: <https://bit.ly/2La14PT>

Esteban, M. L. eta Távora, A. (2008). El amor romántico y la subordinación social de las mujeres: revisiones y propuestas. *Anuario de Psicología*, 39(1), 59-73

Ferrer, V. eta Bosch, E. (2013). Del amor romántico a la violencia de género. Para una coeducación emocional en la agenda educativa. *Revista de Currículum y Formación de Profesorado*, 17(1), 105-122.

Fusté, S. eta Bonastre, M. (2010). *Psicomotricidad y vida cotidiana (0-3 años)*. Barcelona: GRAÓ.

Gil Madrona, P., Cachón Zagalaz, J., Diaz Suarez, A., Valdivia Moral, P., eta Zagalaz Sánchez, M. L. (2014). Las niñas también quieren jugar: la participación conjunta de niños y niñas en actividades físicas no organizadas en el contexto escolar. *Movimiento*, 20(1), 103-124.

Gómez Suárez, Á. (2010). Los sistemas sexo/género en distintas sociedades: modelos analógicos y digitales. *Revista Española de Investigaciones Sociológicas (Reis)*, 130(1), 61-96.

- Iglesias Forneiro, M. L. (2008). Observación y evaluación del ambiente de aprendizaje en educación infantil: dimensiones y variables a considerar. *Revista Iberoamericana de educación*, 47(3), 49-70.
- Kawulich, B. (2006). La observación participante como método de recolección de datos. *Forum Qualitative Sozialforschung / Forum: Qualitative Social Research*, 6(2), Art. 43. Webgune honetatik berreskuratua (2019/04/30): <https://bit.ly/2zEXj2f>
- López Chamorro, I. (2010). El juego en la educación infantil y primaria. *Autodidacta*, 1(3), 19-37.
- López Sánchez, F. (1988). Adquisición y desarrollo de la identidad sexual y de género. *Nuevas perspectivas en el desarrollo del sexo y del género*. Madrid: Pirámide.
- Losada Iglesias, M. C. (2009). *El Juego en la Educacion Infantil*. Lulu Com.
- Lozano, T. eta Ortega, R. (1996). Espacios de juego y desarrollo de la autonomía y la identidad en la educación infantil. *Aula de Innovación Educativa*, 52, 13-17.
- Lleixá Arribas, T., Soler Prat, S., eta Serra Payeras, P. (2020). Perspectiva de género en la formación de maestras y maestros de Educación Física. *Retos: nuevas tendencias en educación física, deporte y recreación*, 37, 634-642.
- Lera, M. J. (2002). *El fútbol y las casitas. Porqué los niños y las niñas son como son*. Sevilla: Guadalema.
- Llorente, B. (2004). *Jolasaren oinarri teorikoak eta umeen jolasak*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. Webgune honetatik berreskuratua: <https://bit.ly/3bs6jW9>
- Majem, T. eta Òdena, P. (2001). *Descubrir jugando*. Bartzelona: Octaedro
- Masuet, X. F. (2007). *Juegos de iniciación a los deportes colectivos*. Bartzelona: Paidotribo.
- Mendoza Cuéllar, H. M. (2013). Dime con qué juegas y te diré quién serás. Análisis de campañas navideñas de juguetes para niños y niñas en televisión de señal abierta en Lima (2011-2012). *Correspondencias & Análisis*, 3, 133-162.
- Pallarès, M. (2012). La cultura de género en la actualidad: actitudes del colectivo adolescente hacia la igualdad. *Tendencias pedagógicas*, 12, 189-210.
- Piaget, J. eta Inhelder, B. (1997). *Psicología del niño* (Vol. 369). Madril: Morata.
- Platero Méndez, R. L. (2014). *Transexualidades: acompañamiento, factores de salud y recursos educativos*. Bartzelona: Bellaterra.
- Puerta Sánchez, S. eta González Barea, E. M. (2015). Reproducción de los estereotipos de género en Educación Infantil a través de los juegos y juguetes. *Revista de Investigación en la Escuela*, 85, 63-74. Webgune honetatik berreskuratua: <https://bit.ly/3aM9hEU>

- Quesada, J. (2014). *Estereotipos de género y usos de la Lengua. Un estudio descriptivo en las Aulas y Propuestas de Intervención Didáctica*. Murcia: Universidad de Murcia.
- Reina Ruiz, C. (2009). El teatro infantil. *Revista digital Innovación y experiencias educativas*, 15, 1-13.
- Rocha Sánchez, T. E. (2009). Desarrollo de la identidad de género desde una perspectiva psico-socio-cultural: un recorrido conceptual. *Interamerican Journal of Psychology*, 43(2), 250-259.
- Rodríguez-López, J. (2015): La difusión de los estereotipos de género a través de las TIC: La mujer en el vídeo musical. *Ámbitos. Revista Internacional de Comunicación*, 29, 33-36.
- Rodríguez Menéndez, M.C., Hernández García, J., eta Peña Calvo, J. V. (2004). Pensamiento docente sobre el juego en educación infantil: análisis desde una perspectiva de género. *Revista española de pedagogía*, 62 (229), 455-466.
- Rodríguez Menéndez, M. C. eta Torío López, S. (2005). El discurso de género del profesorado de educación infantil: hablando acerca de la ética del cuidado. *Revista complutense de educación*, 16 (2), 471 – 487.
- Ruiz de Velasco, Á. eta Abad, J. (2011). *El juego simbólico*. Barcelona: GRAÓ
- Sarlé, P. M. (2001). *Juego y aprendizaje escolar: los rasgos del juego en la educación infantil*. Noveduc Libros.
- Subirats Martori, M. eta Brullet Tenas, C. (1999). *Rosa y azul: la transmisión de los géneros en la escuela mixta* In A. González eta C. Lomas (koord.) *Mujer y educación: educar para la igualdad, educar desde la diferencia* (pp. 133-168). México: Universidad Nacional Autónoma de México.
- Tejerina, I. (1994). *Dramatización y teatro infantil. Dimensiones psicopedagógicas y expresivas*. Madrid: Siglo XXI.
- Villalobos, M. E. (2009). El rol del maestro frente a la construcción del juego simbólico en los niños. *Diversitas: perspectivas en Psicología*, 5(2), 269-282.

9. ERANSKINAK

Eranskin 1

HAURRAK (9 Neska eta 8 mutil)	Estereotipoek markatzen dituzten NESKENTZAKO JOLASAK					Estereotipoek markatzen dituzten MUTILENTZAKO JOLASAK					TALDEKATZEAK			LISKARRAK	
	FAMI	SUKAL	MED	PRINTZ	BESTELAKOA	ERRAMI	BORR	ANIM	SP.HEROI	BESTELAKOA	1	2	3+	BAI	EZ
M1															
M2															
N1															
M3															
M4															
M5															
M6															
N2															
N3															
N4															
M7															
N5															
N6															
N7															
N8															
N9															
M8															
OHARRAK:															

Eranskin 2

1.Saioa

HAURRAK (9 Neska eta 8 mutil)	Estereotipoek markatzen dituzten NESKENTZAKO JOLASAK					Estereotipoek markatzen dituzten MUTILENTZAKO JOLASAK					TALDEKATZEAK			LISKARRAK	
	FAMI	SUKAL	MED	PRINTZ	BESTELAKOA	ERRAMI	BORR	ANIM	SP.HEROI	BESTELAKOA	1	2	3+	BAI	EZ
M1						█							█		█
M2						█							█		█
N1	█											█			█
M3						█							█		█
M4						█							█		█
M5						█							█		█
M6								█			█				█
N2	█											█		█	
N3				█									█		█
N4															
M7		█									█				█
N5	█	█									█				█
N6				█									█		█
N7	█											█		█	
N8				█									█		█
N9	█											█			█
M8															

OHARRAK: -M1, M2, M4 eta M5ek zarara handia egin dute (naiz eta liskarrik ez sortu, gelako giroa apurtu dute)
 -N2 eta N7k rol ezberdinak aukeratzek orduan eztabaia izan dute.
 -M7 sukaletxotan, baina ama zela esan du

Eranskin 3

2.Saioa

HAURRAK (9 Neska eta 8 mutil)	Estereotipoek markatzen dituzten NESKENTZAKO JOLASAK					Estereotipoek markatzen dituzten MUTILENTZAKO JOLASAK					TALDEKATZEAK			LISKARRAK	
	FAMI	SUKAL	MED	PRINTZ	BESTELAKOA	ERRAMI	BORR	ANIM	SP.HEROI	BESTELAKOA	1	2	3+	BAI	EZ
M1															
M2															
N1															
M3															
M4															
M5															
M6															
N2															
N3															
N4															
M7															
N5															
N6															
N7															
N8															
N9															
M8															

OHARRAK: -M7 taldek paper bat betetzen zuen taldean, baina bakarrik jolasten egon da → lanean zegoen aitatxo zen. Bere lana “slime” egitea.
 -M4, M5 eta M6k zarata handia egin dute, gelako giroa oztopatu
 N5 aurreko saioan egindako rol berdinak mantendu du eta berriro bakarrik

Eranskin 4

3.Saioa

HAURRAK (9 Neska eta 8 mutil)	Estereotipoek markatzen dituzten NESKENTZAKO JOLASAK					Estereotipoek markatzen dituzten MUTILENTZAKO JOLASAK					TALDEKATZEAK			LISKARRAK	
	FAMI	SUKAL	MED	PRINTZ	BESTELAKOA	ERRAMI	BORR	ANIM	SP.HEROI	BESTELAKOA	1	2	3+	BAI	EZ
M1															
M2															
N1															
M3															
M4															
M5															
M6															
N2															
N3															
N4															
M7															
N5															
N6															
N7															
N8															
N9															
M8															

OHARRAK:-M7ri barre egin diote soineko bat jartzeagatik, soinekoak neskentzako direla esan diote → soinekoaz aspertu denean spidermanen jantzia jarri du.
 -M6K bizarra mozten ari zela egin du
 -M3, N1, N3, N6, N8 eta N9k animalien karetekin, animalien familiak egin dituzte

Eranskin 5

4.Saioa

HAURRAK (9 Neska eta 8 mutil)	Estereotipoek markatzen dituzten NESKENTZAKO JOLASAK					Estereotipoek markatzen dituzten MUTILENTZAKO JOLASAK					TALDEKATZEAK			LISKARRAK	
	FAMI	SUKAL	MED	PRINTZ	BESTELAKOA	ERRAMI	BORR	ANIM	SP.HEROI	BESTELAKOA	1	2	3+	BAI	EZ
M1															
M2															
N1															
M3															
M4															
M5															
M6															
N2															
N3															
N4															
M7															
N5															
N6															
N7															
N8															
N9															
M8															

OHARRAK: -M1, M2, M4, M5 eta M6 "san ferminetara" jolastu dute -M3 ume txikiaren papera hartu du, N1 eta N9rekin familietan jolasten
 -N5 betiko rola mantendu baina oraingoan N4rekin jolastu du – M7, N2 eta N7k etxetik ekarritako makilajearekin jolasten egon dira
 - N3, N6 eta N8k panpinak kamiseta azpian jarri dituzte eta tripan umetxo bat zutela esan dute.

Eranskin 6

5.Saioa

HAURRAK (9 Neska eta 8 mutil)	Estereotipoek markatzen dituzten NESKENTZAKO JOLASAK					Estereotipoek markatzen dituzten MUTILENTZAKO JOLASAK					TALDEKATZEAK			LISKARRAK	
	FAMI	SUKAL	MED	PRINTZ	BESTELAKOA	ERRAMI	BORR	ANIM	SP.HEROI	BESTELAKOA	1	2	3+	BAI	EZ
M1															
M2															
N1	■												■		■
M3	■														■
M4						■		■				■			■
M5								■							■
M6								■			■			■	
N2					■								■		■
N3					■								■		■
N4								■					■	■	
M7					■								■		■
N5						■						■			■
N6					■								■		■
N7					■								■		■
N8					■								■		■
N9	■												■		■
M8		■									■				■

OHARRAK: M8 ikasle berria etorri da, tea prestatzen egon da (musulmanen kulturaren gizonzkoek prestatzen dute tea) –M7 neskek makilatu ditu
 -M6, N4rekin haserretu da, zezen karera berarentzako nahi zuelako “neskak ez dira zezenak” esan dio
 -N1, N9 eta M3 familietan jolastu dute. M3 berriro ume txikiaren papera

Eranskin 7

6.Saioa

HAURRAK (9 Neska eta 8 mutil)	Estereotipoek markatzen dituzten NESKENTZAKO JOLASAK					Estereotipoek markatzen dituzten MUTILENTZAKO JOLASAK					TALDEKATZEAK			LISKARRAK	
	FAMI	SUKAL	MED	PRINTZ	BESTELAKOA	ERRAMI	BORR	ANIM	SP.HEROI	BESTELAKOA	1	2	3+	BAI	EZ
M1															
M2															
N1															
M3															
M4															
M5															
M6															
N2															
N3															
N4															
M7															
N5															
N6															
N7															
N8															
N9															
M8															

OHARRAK: -M1ek N3ri zizta egin nahi zion medikuetan jolasten ari ziren bitartean, baina honek ez zuen nahi eta liskarra sortu da.
 -M6k ez zuen M8rekin espazioa partekatu nahi eta liskarra sortu da → gero konpondu dute eta elkarrekin jolastu dute.
 -M2k kobazulo bat egin du eta lagunak gonbidatu ditu barrura sartzera – M5 berriro bakarrik amatxoren rolean

Eranskin 8

7.Saioa

HAURRAK (9 Neska eta 8 mutil)	Estereotipoek markatzen dituzten NESKENTZAKO JOLASAK					Estereotipoek markatzen dituzten MUTILENTZAKO JOLASAK					TALDEKATZEAK			LISKARRAK	
	FAMI	SUKAL	MED	PRINTZ	BESTELAKOA	ERRAMI	BORR	ANIM	SP.HEROI	BESTELAKOA	1	2	3+	BAI	EZ
M1															
M2															
N1															
M3															
M4															
M5															
M6															
N2															
N3															
N4															
M7															
N5															
N6															
N7															
N8															
N9															
M8															

OHARRAK: -Saio hau psikomotrizitate gelan egin da eta hurrek partaide gehiagoko taldekatzeak egin dituzte → tela batekin “autobus magikoa sortu dute”.

-N3, N6 eta N8 blokeekin etxetxoak egin dituzte. N7 tripitan umetxo bat zuen amaren papera antzeztu du eta

-N1, N5 eta N9 igerilekuan eguzkia hartzen ari zirela antzeztu

Eranskin 9

8.Saioa

HAURRAK (9 Neska eta 8 mutil)	Estereotipoek markatzen dituzten NESKENTZAKO JOLASAK					Estereotipoek markatzen dituzten MUTILENTZAKO JOLASAK					TALDEKATZEAK			LISKARRAK	
	FAMI	SUKAL	MED	PRINTZ	BESTELAKOA	ERRAMI	BORR	ANIM	SP.HEROI	BESTELAKOA	1	2	3+	BAI	EZ
M1															
M2															
N1															
M3															
M4															
M5															
M6															
N2															
N3															
N4															
M7															
N5															
N6															
N7															
N8															
N9															
M8															

OHARRAK: -Mozorroek protagonismoa izan dute -N5 taldean jolastu du, N1, N9 eta M3rekin. M3 berriro ere umetxo txikiaren papera -M2k panpina kamiseta azpian sartu du, baina lagunek ez kentzeko

Eranskin 10

9.Saioa

HAURRAK (9 Neska eta 8 mutil)	Estereotipoek markatzen dituzten NESKENTZAKO JOLASAK					Estereotipoek markatzen dituzten MUTILENTZAKO JOLASAK					TALDEKATZEAK			LISKARRAK	
	FAMI	SUKAL	MED	PRINTZ	BESTELAKOA	ERRAMI	BORR	ANIM	SP.HEROI	BESTELAKOA	1	2	3+	BAI	EZ
M1									■				■		■
M2									■		■				■
N1					■								■		■
M3								■				■			■
M4									■				■		■
M5									■				■		■
M6								■				■			■
N2					■								■	■	
N3					■								■		■
N4									■				■		■
M7					■						■			■	
N5	■										■				■
N6					■								■		■
N7					■								■	■	
N8					■								■		■
N9					■								■		■
M8										■	■				■

OHARRAK: -N2 eta N7 ez zuten M7 makilatu nahi eta M7 oso triste egon da –Neska gegienak makilajearekin jolasten egon dira -N5 berriro bakarrik eta amaren papera eginez - N4, M1, M4 eta M5 elkarrekin jolasten egon dira “Harry Potter” bezala magia egiten – M8 lego piezekin argazki kamera bat egin du eta argazkiak egiten zituela irudikatu du – M3 eta M6 lehoien karetekin lehoien antzera borrokatu dute

Eranskin 11

10.Saioa

HAURRAK (9 Neska eta 8 mutil)	Estereotipoek markatzen dituzten NESKENTZAKO JOLASAK					Estereotipoek markatzen dituzten MUTILENTZAKO JOLASAK					TALDEKATZEAK			LISKARRAK	
	FAMI	SUKAL	MED	PRINTZ	BESTELAKOA	ERRAMI	BORR	ANIM	SP.HEROI	BESTELAKOA	1	2	3+	BAI	EZ
M1			■									■			■
M2			■									■			■
N1	■												■		■
M3	■												■		■
M4						■						■	■		■
M5						■							■		■
M6								■					■		■
N2	■												■	■	
N3								■					■		■
N4						■							■		■
M7	■												■	■	
N5	■												■		■
N6								■					■		■
N7	■							■					■	■	
N8								■					■		■
N9	■												■		■
M8		■									■				■

OHARRAK: - M1 eta M2 medikuetara jolasten egon dira (bitxia M2k ez du horrelako jolasekiko interesik izaten)
 -N2 eta N7, M7rekin gatazka izan dute, M7 gelako jostailuzko labadoraren barruan sartu nahi zuelako

